


VILLA KAREAGA
D MAILA

ATEGORRIETAKO GALTZARA ZAHARRA 95



Ramon Kortazar, 1912.

Deskribapena

Ondoko Villa Uliazpirekin batera Ategorrietako Galtzada Zaharrerako fronte handia daukan partzela bat eratzen du. Beste etxearen garrantzia izan gabe ere, bolumena, lerrokadura eta fatxaden kolorea ditu harekiko elementu komun. Eraikin hau nahiko aldatuta dago arotzerietan, balkoietan eta bilbaduretan. Beheko solairua, lehen solairua eta zurezkoa izaten segitzen duen teilatupeko bigarren solairua dauzka. Isurki biko baserriaren tipologia, fatxada nagusi bakarrekoa, libreki aldatzen da, albo batean horma pikoa eginez eta txapitula jakobinoak binaka ipiniz eraikinaren alde banatan.

D mailako babes erregimen espezifikoa

- 1.- Babesetik kanpo utzitako fatxadako elementuak edo zatiak: geroko handitze laneko hormartea, estalki garaiagoa duena, eta fatxada nagusiko erantsiak.
- 2.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: bilbadurak, zurezko elementuak eta estalkia.
- 3.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak: jasodurarik gabe.
- 4.- Nahitaezko lehengoratzak: ez.